

EUSKARAREN EGOERAZ

MIKEL UGALDE

Gurasuak daukagun obligaziyua, umiari emateko edukaziyua... (Joakin M.ª Jauregi, 1880)

GURE hizkuntzaren egoera, euskal literaturaren ezaugarriak, euskararen nondik norakoa, eta abar, hobeto ezagutzeko zoria izango dugu hemendik aurrera. Unibertsitatean, ikasten nahiz irakasten, diharduen jendeak gero eta gehiago jorratuko du euskalgintzaren saila azalpen, tesina edota doktoradutzarako lan marduletan. Ikasgai eta ikergai bilakatzen ari zaigu euskara guztion mesedetan.

Ikerketa lana, ordea, ez da Unibertsitatera mugatzen gero eta ugariagoak baitira udalerrri eta eskualdetan euskararen inguruan bultzatuko ikerlanak. Testuinguru honetan benetan interesgarria argitara berria den demolinguistikazko lana.

EUSKARAREN MAPA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politika Idazkaritzak argitaratutako demolinguistikazko mapak datu ugari eskaintzen digu euskal hitzneriari buruz. Euskaldunok non eta zenbat garen argi jasotzen du horretaz gain berri interesgarriak eskaintzen digularik. Hemendik jaso ditut orain komentatzera goazen daturik nagusienak.

Aurrera jarraitu baino lehen, esan beharra dago aipatu lan hau mugatua dela, ez duela euskararen lurraldetasun osoa hartzen, euskararen erabileraz ez digula berririk ematen. Eusko Jaurlaritzaren eremu barruan hitzneriari buruzko fotografia bat da. Damurik, bertan ez da Nafarroako ez Ipar aldeko daturik jasotzen. Halaz ere, muga eta guzti, abiapuntu bikaina gerta liteke egunen batean Euskal Herri osoko mapa buruturik ikus dezagun.

Lan hau osatzeko iturria 1986 urteko errolda lanarena izan da. Ohizko galderaz aparte euskarari buruzko gaitasunez ere egiten zenez informazio oparorik jaso da erroldaren inguruan. Biztanleok emandako erantzuna isladatzen da mapa horretan.

Bada informazioaren fidagarritasuna zalantzan jarri duenik ere alde batetik zein bestetik, herritarron erantzuna egia izan ez ote denaren beldur. Datuok onargarriztat eman behar dira, ez dago bestelakorik pentsatzeko arrazoirik. Euskaldungoaren hitzneriari buruz zeharka egiaztatu ahal izan denez, euskaldunen kopurua Komunitate Autonomoan horietatik dira.

EUSKALDUNAK ZENBAKITAN

Mapari gain begirada bat emanez, ez da aparteko ezustekorik jaso. Jakin bagenekien lurralderik erdaldunenak Araba neurri handi batetan eta Enkarterriak zirela, euskaldunenak,

aldiz, Lea Artibai eta Urola bailara jotzen genituen bezalaxe. Hiriburuetan euskaldun kopuru dezentea bizi da. Donostian 45.500 dira euskaldunak, Bilbon 36.300 baina guztira bertako biztanlegoaren 4 10era ez da iristen. Bistan da zenbat euskaldun dagoen jakiteaz gain, nola eta non bizi diren kontutan hartzea ezinbestekoa dela.

Zenbakiak eta kopuruak aspergarriak izan ez daitezkeen mapan jasotako daturik interesgarrienak baino ez ditugu aipatuko gehiagoren egarri denak non ase jakingo duelarik.


Hona hemen Komunitate Autonomoan biztanleak hizkuntzaren arabera sailkatuak:

	ARABA	%	BIZKAIA	%	GIPUZKOA	%	DENERA	%
Euskaldunak	17.349	6,71	200.734	17,54	292.923	43,76	511.006	24,66
Ia-euskald.	43.871	16,96	206.016	17,91	113.670	16,98	362.557	17,49
Erdaldunak	197.567	76,35	738.958	64,56	262.886	39,27	1.199.411	57,86

Zenbaki esanguratsuak aurrez aurre ditugunak. Hor, beharbada, «ia-euskaldun» delako horien kopurua da zehaztasun gutxienik eskaintzen duena, zaila baita ia euskaldun izate horren neurria behar bezala zehaztea. Hala ere Araban, eskolaren eragina ere ez da urrutitilik, % ia 17k ia euskaldun bezala egin duten aitortpena gogoan hartzekoa da nolana ere.

Honako grafikoan garbi ikusten da euskarak lurralde bakoitzean duen hitzneriari dagokion pisua.

HIZKUNTZ GAITASUNA HERRIALDEKA



DONOSTIA ESKUALDEA

Demolinguistikazko mapan bailaraka ere azaltzen da euskararen presentzia bereziki marraztua. Donostialdeari begirada bat botatzen badiogu 25-49 tarteko portzentaiak jasotzen dituen gisara marraztua ikusten, Behe Bidasoa bezalaxe.

Eskualdeak aipatzerakoan, Donostia eta Irunen tartean aurkitzen diren Pasaia, Errenteria eta Oiartzun Donostialdeko eskualdean jaso ditu mapak beste aldetik Andoain eta Usurbil hartzen dituelarik. Ama askoren semeak gaude, beraz, eskualde horretan sartuta. Batzuk oso euskaldunak, Usurbil eta Oiartzun adibidez, eta besteak Komunitatearen batz bestekora iristen ez direnak, Pasaia eta Errenteria kasu.

Ondoren aipatzen diren datuetan ama hizkuntzaren datua ere jaso nahi izan hizkuntza beheartza ala gorantz doan ikusteko ezinbesteko datua delako. Eskualde osoari dagokionean bere horretan eusten zaiola bistan da. Ama hizkuntza euskara bakarrik edota euskara ere izan dutenen kopurua eta ondorengo euskaldunen kopuru osoarena bateratsu dabilta. Ez dago alde handirik Errenterian zerbait galdu egin dela ikusten den arren.

	LENGUA MATERNA				COMPETENCIA LINGÜÍSTICA			
	Población	Solo euskera	Euskera y castellano	Castellano	Población	Euskaldunes	Cuasi Euskaldunes	Erdaldunes
DONOSTIALDEA	315.759	25,13	6,63	65,83	307.130	30,40	19,87	49,69
Andoain	15.961	35,47	6,04	56,68	15.449	41,14	19,89	38,95
Donostia-S. S.	175.138	20,32	8,24	69,29	170.436	26,71	23,44	49,80
Errenteria	43.676	20,55	3,51	73,64	42.564	23,51	14,98	61,47
Hernani	19.096	39,06	8,44	51,14	18.566	44,44	19,69	35,83
Lasarte-Oria	18.589	24,47	3,76	70,74	18.014	28,11	13,47	58,40
Lezo	5.659	42,30	2,98	52,74	5.445	46,45	17,99	35,51
Oiartzun	8.042	70,55	4,70	23,26	7.790	75,49	10,60	13,87
Pasaia	19.552	20,42	4,24	66,41	19.133	23,15	11,71	65,11
Urnieta	4.440	38,60	3,46	56,17	4.298	43,73	11,71	44,53
Usurbil	5.606	59,57	2,94	36,65	5.435	63,40	17,96	18,60

EUSKARA ERRENTERIAN

Eta Errenterian zer? galdetuko du bateren batek jakinminnez. Eguneroko bizitzan sumatzen duguna bistatzen da mapan. Motz gelditzen gara, ez gara iristen. Xenpelarren garaian agian beste itxura hobea erakus zezakeen baina oraingo honetan, inmigrazioaren eragina erabateko eragina izan duenik ezin uka, tropelaren atzekaldean aurkitzen gara. Eta orain ongi ez bagaude, hemendik urte batzutura ez gara hobeto ibiliko. Hori zergatik? Euskaldungoaren multzo handi bat 65 urtez gorako jendeak osatzen duelako. Eta hemen, beste lekutan bezala, batz beste, zaharra gaztea baino gehiago hiltzen da. Begira, bestela, adinaren arabera euskaldunen portzentaia zenbatekoa den gure herrian:

ADINA						
	2 - 17	18 - 24	25 - 34	35 - 44	45 - 65	< 65
%	23,17	21,87	20,01	18,54	25,80	37,59

Arretaz begiratzea merezi duen koadroa da. Bertan garbi ageri dira euskaldunak zenbat eta zer edadetakoa diren. 65 urtez gorako portzentaia 44 urtez beherakoen ia doblea da. Hurren urteetan, zaharrak gehiago direnez, portzentaian neurriak behera egingo du. Eskerrak gazteria eta haurriaren kopurua gorantz egiten duen. Hortxe dago esperantza. Ikastolak badu, dudarik gabe, zer ikusi nabarmenik guzti horretan.

Beste datu adierazgarriak ere jasotzen da mapan. Adinaren arabera aztertuz gero, 2-17 bitarte multzo horretan izan ezik,

euskara galduz joan zaigula adierazten dute bildutako datuek. Gurasoak euskaldun izanik ere ez dituzte, oraintsu arte, seme-alabak behar hainbateko neurrian euskaraz hazi. Behera egin du euskarak. Orain, ordea, gauzak alderantziz 2-17 urtetako adin multzoari bagagozkio, guraso baino haur-gazte euskaldun gehiago azaltzen da proportzioan. Ez da berri txarra. Zenbakiak zenbaki, euskararen aldeko joera nabarmen zuten hasia da jadanik.

Honenbestez ez dugu kanpaiak jotzeari ekin nahi. Lehen esan bezala, mapa honetan ez da euskararen erabilerarik jasotzen ez eta euskararen barne osasunik neurtzen. Argazki bat baino ez da. Horrek ez du euskaraz gehiago hitzegiten denik esan nahi.

EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza eta hezketaren aldeko kezka ez da gaur gaurkoa euskal gizartean, Joakin María Jauregik, «Panderik» 1880 urtean kantatutako bertsoa lekuko. Azken urte honetan eman den aldaketak erakusten digunez, euskal hezkuntza baten aldeko apustua egin du Euskal Herriak, Nafarroa eta Ipar aldea barne. Hezkuntzaren inguruan bildutako datuak euskararekiko jarrera erakus liezagukeelakoan aldatu dugu hona zenbait zenbaki.

Euskararen berreskurapenean eskolak izan duen eragina bistan da. Eskolak eta konkretuki ikastolak, agian, Fishanek ezinbestekotzat jotzen duen gizarte laguntza berekin izan duelako.

Gai honek luzaz ihardutea eskatuko liguke eta mereziko lukeen lana litzateke. Hemen laburbeharrez, ez bait dugu gai hau joratzeko hainbat astirik, eskolaurrearen adibidea baino ez dugu jasoko. Eskolaurreak erakusten bait digu ongienik egungo gurasoek seme-alabentzat egin berri duten hezkuntza ereduaren aukera. OHOn, eta batez ere Irakaskuntza Ertaintan, zenbakiak guztiz bestelakoak direla ez dago dudarik. Parez pare ipiniko ditugu joeraren nondik norakoa erakus diezagu.

Ikaslegoa Komunitate Autonomoan ereduak, 1987-88 ikasturtean.

EREDUAK	A	%	B	%	D	%	X	%
ESKOLAURREAN	24.911	36,24	23.207	33,76	19.587	28,94	730	1,06
OHO	184.709	65,55	40.171	14,26	55.030	19,53	1.880	0,66

Orokorki hartuta, irakaskuntza euskaldunago baten apustua ikusten da. Geroari begira, oraindik irakaskuntza ertainetan erroto ez den B ereduak zer ikusi haundia izango du.

Errenteriarri dagokionean bertako joera ikusteko nahiz komunitatekoekin konparatu nahi dituenarentzat, hona hemen zertzelada batzuk ikasturte berean jasoak.

EREDUAK	A	%	B	%	D	%	X	%
ESKOLAURREA	444	37,34	479	40,29	266	22,37		
OHO	4.781	77,54	280	4,54	1.105	17,92		

Hemen jaso diren datuekin joera nabariak bistatzen dira baina gure hizkuntzari buruzko osasunaren berri zehatzik eman gabe. Ez da erraza. Zenbat, noiz, nola, norekin, zer funtziotan, zer eratako harremanetan euskaraz eta noiz erdaraz (bada zakurrari euskaraz eta ezkontide euskaldunari erdaraz egiten dionik), eta abar. Tokian tokiko azterketa sakonagoa behar da guzti horren berri zehatza edukitzeko. Horretaz aparte, nolako euskara egiten den kontutan hartzekoa da, gero eta narratsagoa egiten ote dugunaren susmoa hartzen digute euskaldun zaharrek. Hizkuntza berez bizia da, aldakorra, erabileraren poderioz indartu ala makaldu daitekeena. Ez da erraza bere osasuna neurtuko duen termometroa aplikatzen, are gaitzagoa diagnostiko egoki bat egiten.